

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



### Udaletxeko fatxada urdinez argiztatuko da urriaren 24an NBEren 75. urteurrena ospatzeko

*Herrien arteko elkarrizketa babestu nahi du Udalak*

Larunbatean, urriak 24, NBEren 75. urteurrena dela eta, Donostiako Udaleko fatxada urdinez argiztatuko da.

Horrela, gogora ekarri nahi da 75 urtetan herrien arteko elkarrizketa funtsezkoa izan dela aurrera egiteko, besteak beste, giza eskubideetan, hezkuntza unibertsalean, pobreziaren aurkako borrokan eta genero-berdintasunean.

Ildo horretan, Udalak konpromiso berritua erakutsi du pertsona guztien eta gure planetaren ongizatearekin, Nazio Batuen Garapen Iraunkorraren 2030 Agendarekin eta nazioen arteko lankidetzeta eta elkartasunarekin.

Hala, Donostiako Udalak, Bilbo eta Gasteizekoarekin batera, bat egin du hainbat gizarte-erakundek eta erakunde publikok bultzatutako kanpainarekin, efemeride hori gogoratzeko eta herrien arteko elkarrizketaren alde egiteko.

Euskadin, ekimen honen sustatzaileak UNESCO Etxea, Euskadiko UNICEF Batzordea, UNRWA Euskadi eta ACNUR Euskal Batzordea izan dira.

Kanpainak #ONU75 traola erailiko du

#### **Efemeridea**

1954ko urriaren 24an, 50 estatuk Nazio Batuen Gutuna sinatu zuten, arazo partekatuei irtenbide komunak eskaintzen saiatzeko.

Donostia, 2020ko urriaren 23a